

begira

MARKA ENPLEGATZAILEA

2022ko abendua
56



nire
aukera
da!

ULMA AUKERATZEN DUT

Fai zorientsuak

 **ULMA**

4



— Albisteak eta gaurkotasuna

—
Formatua kontrolatzeko
RFID bidezko sistema
berria, ontziratze
makinen erabilgarritasuna
maximizatzeko

05

—
Prestakuntza egun bat baino
gehiago

07



—
ULMAK Euskaraldiko 3.
edizioan parte hartu du

08

—
EDIA XL orga elektrikoa,
2022ko Produktu
Jasangarririk onena

15

16



— ULMA Taldeko beste talentuak

—
Patxi Luque.
Energia hutsa

16

18



— Erreportajeak

—
`Nire aukera da!
ULMA aukeratzen dut´.
ULMAren Marka
Enplegatzailea

18

—
Teknologiarik solidarioena

22

23



— Agenda eta iradokizunak

—
Erretiroak
Irailaren 1a – abenduaren 31

23

—
Baskonia

24



ARGITARATZAILEA: Grupo ULMA S. Coop. Bº Garagaltza 51 20560 OÑATI, T 943 25 03 00
ZUZENDARITZA: Carlos Sarabia | csarabia@ulma.com
EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA: Oihane Etxebarria, Aitor Castro, Elena Goirizelaia, Maria Sendin, Sara Soria, Janire Laconcha, Nerea Burgoa, Itsaso Letamendi eta Carlos Sarabia
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Igone Basterra | ibasterra@ulma.com



Paper ekologikoa

2

3

ULMA HANDLING SYSTEMS ABIDJANEKO AIREPORTUAN, BOLI KOSTAN



ULMA HANDLING SYSTEMS

Aeriak, Boli Kostako Abidjaneko aireportuko operadoreak, ULMA Handling Systemsen jarri du konfiantza Baggage Handling Systemsen proiektu berri baterako.

Aireportu horretako trafikoa suspertzen ari da, pandemia aurreko mailetara iristen ari baita, eta 2022an 2 milioi bidaiarira iristea espero dute. **Kapazitate falta arazo kezagarria da konpainiarentzat**, eta, horregatik, Aeriak eta ULMAk kontratu bai sinatu dute **Hegoaldeko**

terminalaren zabalkuntza garatzeko, nazioarteko trafikoari lekua egingo diona, egungo nazioarteko terminalak xurgatu ezin dituen gehiegizko hegaldiak egokituz.

Irteera sistema bat da, ekipaje arruntetarako 6 fakturazio mostradorez eta ekipaje estradimentsionalarako beste mostradore batez osatua, eta, gainera, X izpien makina konbentzional integratu bat duen ikuskapen lerro bat dauka.

Eskaera hori esleitzeak esan nahi du ULMA Afrikako kontinenteko herrialde berri batean sartzen dela. Maroko, Aljeria, Libia, Egipto, Etiopia, Burundi eta Nigeriako aurreko erreferentziekin bat eginez, Afrikako 8 herrialde dira guztira, eta horrek ezin hobeto kokatzen du ULMA eraikitzen ari diren terminal berriaren etorkizuneko BHS sistemari dagokionez (Baggage Handling Systems), zeina datorren urtean lizitatuko baita.

ULMA ETA MLE ARTEKO BANAKETA AKORDIOA BERRITZEA

ULMA Manutentzio Zerbitzuak (USM) eta materialen logistika eta manipulaziorako soluzioen nazioarteko hornitzaile **Mitsubishi Logisnext Europe (MLE)** etxeek **Espainiarako banaketa** akordioa berritu dute datozen bost urteetarako.


Kooperatibaren hasieratik –OINAKAR izenarekin hasi zen–, lankidetzaren etengabea izan da Mitsubishi Forklift Trucks markarekin. Denborak aurrera egin ahala, negozioa bere posizioa finkatzen joan zen, ULMA progresiboki hazten joan da, eta gero eta garrantzia handiagoa du Espainian mantentze lanetan eta horiei lotutako zerbitzuak egiteko eskaintzari dagokionez.

Gaur egun, markari ia lau hamarkada lotuta egon ondoren, eta ezagutza eta esperientzia trukatzeari eta etengabeko hobekuntzari esker, lankidetzaren hitzarmena berretsi egin da, erronka estrategiko berri eta ilusionagarriak bere gain hartzeko asmoz.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

ERAIKINEN ARTEKO KOHERENTZIA ESTETIKOA



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek fatxada aireztatuz estali du Leonardo Royal Hotela, Bartzelonako Portal Firal konplexuan kokatua. Multzoa osatzen duten beste bost eraikinekiko modu diskretu eta koherentean integratzen da. Bost eraikin horietatik bik ULMAren fatxada aireztatua dute: ESTEVE Eraikinak eta Leonardo Royal Hotelak.

Proiektatzean, eraikinen arteko konplizitatea eta hizkuntza komuna erakustea zen helburua, eta, hori lortzeko, eraikuntza sistema bera aukeratu zen, fatxada aireztatua, eta akaberarako Stoneo plaketan oinarritutako materiala erabili zen.

Leonardo Royal Hotelak **3.000 m² baino gehiagoko fatxada** du, eta **PURE gamako harrizko akabera**

du. Beheko aldea iluna da, ia beltza, eta gelen goiko aldea gris argia; Esteve Eraikinean erabilitako akabera berdinarekin.

FORMATUA KONTROLATZEKO RFID BIDEZKO SISTEMA BERRIA, ONTZIRATZEKO MAKINEN ERABILGARRITASUNA MAXIMIZATZEKO

ULMA Packagingek egiaztapen sistema berri bat garatu du, hariarik gabeko sentsoreekin, ontziratzeko makinak dituen osagaiak martxan dagoen errezetarako egokiak direla identifikatzen eta egiaztatzen duena.

Formatua kontrolatzeko sistema berri hori **gai da erretiluak eta moldeak garraiatzeko besoak egiaztatzeko, eta, horrela, alerten bidez adierazten du horietakoren bat dagokiona ez bada**. Horrenbestez, operazio akats posibleak saihesten ditu eta formatu aldaketaren ondoriozko geldialdi denborak minimizatzen ditu.



ULMA PACKAGING

Beste urrats bat da ULMA Packagingen etengabeko anbizioan: bere makinei ezaugarri adimendunagoak ematea, OEE (Ekoizpen Ekipoen Eraginkortasun Globala) hobetzen laguntzeko

ULMAK LANKIDETZA AKORDIOAK SINATU DITU HAINBAT ERAKUNDEREKIN

Sinatutako akordioek ULMAren eta hainbat erakunderen arteko lankidetzak hobetzea dute helburu, horien artean, besteak beste, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Tecnum - Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola eta Mondragon Unibertsitatea daude.

Hartutako konpromisoa da elkarren intereseko jardueretan **ezagutza teknologikoa eta ez-teknologiko arloetan lankidetzak sustatzea**, ezagutza sortzea, truketzea eta transferitzea bultzatu, talentua garatzeko eta ULMAra erakartzeko.

ULMA TALDEA



SOLUZIO BEREZIAK VARSOVIAKO (POLONIA) BULEGOGUNE BATERAKO

ULMA CONSTRUCTION



VARSOVIAN FOREST BULEGO ETA ZERBITZU GUNEA ERAIKITZEN ARI DIRA, 120 METROKO ALTUERAKO ETXE ORRATZ BAT DA. ERAIKIN BERRIA OASI BERDEA IZANGO DA, BI FUTBOL ZELAIREN TAMAINAKO BERDEGUNEAK IZANGO BAITITU.

Forest bulegoguneari esker Varsovia hiriak 78.000 m²-ko azalera edukiko du alokairurako, kafetegien eta zerbitzuetarako lokalen eremuak barne. Guneak 120 metroko dorre bat dauka, eta 6 eta 8 solairuko beste eraikin batzuk ondoan.

Espazio berri horretan, erabiltzaileen ongizatea kontuan hartu da, eta, horretarako, terrazak jarri dira perimetro osoan, baita baratze txikiak, txori eta intsektuentzako babesleku bereziak eta aire zabaleko gimnasioak ere.

Proiektuaren arduradunekin lankidetzak estuan, soluzio bereziak garatu ditugu: aldi bereko ebakuaziorako bi bide dituen eskaileraren hutsune konplexura egokitutako enkofratuak, eta biltegitratze plataforma batzuk eraikinaren perimetroan, 6,8 metroko hegalararekin.



ULMAren SOLUZIOA:

- Hormak, nukleoak eta pilareak: 3,5 m - ORMA, ATR, KSP
- Ohiko lauza: 1.385 m² - CC-4, ENKOFLEX
- Apeoak: 12,9 m - T-60
- Segurtasuna: 39 paneles - HWS

PRESTAKUNTZA EGUN BAT BAINO GEHIAGO

ULMA EMBEDDED SOLUTIONS



ULMA EMBEDDED SOLUTIONSEKO TALDE OSOAK KOMUNIKAZIOAREN BOTEREARI BURUZKO PRESTAKUNTZA JARDUNALDI BATEAN PARTE HARTU DU.

Arantzazu Laben egindako saioak Alvaro Simonek gidatu ditu, jendarean hitz egiteko tekniken inguruko mentore eta prestatzaileak, eta **bi helburu** nagusi zituzten: alde batetik, **komunikatzeko trebetasunak hobetzeko hainbat gako aurkitzea**, eta, bestetik, jardunaldia baliatzea **taldean sakontzeko eta bulego eta kokapen desberdinetako pertsonak hobeto ezagutzeko**.

Azken urteetan, plan estrategikoaren ondorioz, ULMA Embedded Solutions negozioa hazten ari da,

eskariak handitzen doazen heinean. Eta, horren emaitza gisa, beste gauza batzuen artean, pertsona taldea ere handitu egin da. Gaur egun, 40 profesionalak osatutako taldea Oñatin, Bilbon eta Madrilen banatuta dago, eta hauteman da distantziak eragotzi egiten duela komunikazioa, eta baita partaide izatearen sentimendua ere.

Gainera, proiektu askok profil desberdinetako talde lana eskatzen dute, eta barneko zein kanpoko interakzioak funtsezkoak dira.



ULMA FORGED SOLUTIONSEK TALDEA HANDITU DU AEB-N

ULMA FORGED SOLUTIONS



ULMA Forged Solutionsek AEBn duen talde komertziala indartu du, joan den irailean Chris Willie sartu baitzen. Forjaren industriaren barruan OEM etxeari pieza forjatu bereziak saltzen eskarmentu komertzial handia duen profesionala da. Taldekide berriarekin ULMAk Estatu Batuetan duen bilakaera indartu egiten da.

Hainbat hamarkadatan, ULMA kalitate handiko briden funtsezko hornitzailea izan da Ipar Amerikako hornidura katean. Etorkizunari begira, bere posizioari eustea eta hodi, osagarri eta briden industrian dituen harremanak sendotzen jarraitzea espero du.

ULMAk haztearen eta industria eta merkatu berrietara egokitzearen alde egiten du, bezeroa ardatz duen kalitate handiko hornitzailea izanik. Eta, datozen hamarkadetan, Ipar Amerikako merkatuan brida eta osagai forjatuen hornitzaile onena izaten jarraitzeko asmo sendoari eusten dio.

LORA BANKUAREN MODELO BERRIA, KLASIKO BATEN MOLDAKETA

Lora modelo berria, ULMA Architectural Solutionsen LUR bildumako bankuetako bat, **Londresko Hyde Park parkeko banku klasikoaren moldaketa** bat da, hau da, hiriko banku ospetsuenetako baten moldaketa.

Miguel Angel Ciganda diseinatzaileak sortutako modeloaren inspirazioa izan da modelo klasiko bat garai berrietara egokituta, baina oraingoan **Stoneo materialaz eginda**, iraunkorragoa eta urarekiko erresistenteagoa baita.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMAK EUSKARALDIKO 3. EDIZIOAN PARTE HARTU DU

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra ULMAko lankideek ariketa sozialean parte hartzeko aukera izan dute. Norbanako bakoitzak egokien zaion rola aukeratu du: Ahobizi edo Belarriprest. Gainera, aurreko edizioan bezala, Ariguneak sortu dira, euskara eroso erabiltzeko aukerak dituzten guneak identifikatu dira eta adostutako erabilera helburuak betetzeko ahalegina egin da.

Gaiaren lanketa udaberriari hasi zen arren, udazkenean burutu da ariketa. Azaroan Belarriprest eta Ahobizi roletan sakontzeko formazio saioak egin dira.

Azaroaren 18an taldeko **argazkiekin eman zitzaion hasiera** hamabost eguneko ariketari, eta, ondoren, beste hainbat ekintza egin dira: **argazki eta lelo lehiaketan kalea eta euskara lotu dira**, eta **Eneko Axperen hitzaldiarekin**



ULMA TALDEA

espazioraino joan ziren entzuleak. Amaitzeko, abenduaren 2an, Euskararen Egunaren bezperan, **euskarak ULMari eta ULMAk euskarari ematen dionaren berri azaldu zuen ULMA Taldeko lehendakariak.**

Kike Amonarrizek adierazi duen bezala, *"Euskaraldia palanka*

da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako". Aurtengo palankak aktibatutako lorpenak eta dinamikak iraunarazten jarraituko du ULMAk. Hitzeg egiteko garaia izan da eta horretan jarraituko du.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS ETA REMA TIP TOPEK ALIANTZA SINATU DUTE TXILEN

ULMA Conveyor Componentsek uhal garraiatzaile "Azkar eta Ahaltsuen" inguruan Viña del Marren (Txile) egin den IV. Kongresuan parte hartu du.

Ekitaldian hornitzaileek eta bezeroek parte hartzen dute, eta ULMAk soluzio integralak eskaintzen dituen talde gisa aurkezteko helburua bete du, eta, gainera, azkenean merkatu hain garrantzitsu horretan sendo lurreratu dela erakutsi ahal izan du.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ATR, RKS ETA HWS SISTEMAK FUNTSEZKOAK IZAN DIRA GIBRALTARREN 6 DORRE ERAIKITZEKO

HCT GIBALTAR BABES OFIZIALEKO 665 ETXEBIZITZAKO PROIEKTUA DA, GIBALTARREKO GOBERNUAK GARATUA ETA SUSTATUA. GAUR EGUN ETA DATOZEN URTEETAN BIZITEGI ERAIKINIK GARRANTZITSUENA DA.

Hassan Centenary Terraces proiektuak altuera handiko 6 dorre ditu, eta bi fasetan egin dira: lehenengo fasean, 4., 5. eta 6. dorreak egin dira, eta bigarrenean, berriz, 1., 2. eta 3. dorreak. Altuera 4. dorrea da, eta 35 solairu ditu; 5. eta 6. dorreak, berriz, geometria eta altuera desberdinekoak dira, eta 26 solairu dituzte. Proiektuaren hasieratik bezeroarekin batera egin da lan.

Haizeak jotzen duen lekua denez, garabia erabilgarri egon behar zen beti. Hori dela eta, **ATR eta RKS sistema autoigokariekin eta HWS perimetroko babesak funtsezko zeregina izan dute prozesu osoan**, solairu bakoitzeko zirkloak asterokoak izanik.



ULMA CONSTRUCTION

ULMAREN SOLUZIOAK PROIEKTURAKO:

- Hormak, nukleoak eta pilareak - 3,05 m: ORMA, LGW, RKS, ATR
- Ohiko lauza - 1.050 m²: ENKOFLEX, Mesa VR
- Apeoak - 2,8 m - 18,2 m: EP, ALUPROP
- Segurtasuna - dorrearen arabera 13 edo 27 pantaila: HWS
- Aldamia: BRIO eta DORPA

PROIEKTUAREN DATUAK:

- Azalera: 120.000 m²
- Gehieneko altuera: 106 m

ORONAK ULMAN JARRI DU KONFIANTZA BERRIRO, ETA HAINBAT HAMARKADATAN DIRAUCEN HARREMANA SENDOTU DU

Oronak berriro aukeratu du ULMA Manutentzio Zerbitzuak **HUBTEX orga jasotzaileen eta saldu osteko soluzio eta zerbitzuen hornitzaile** izateko. Bi enpresen arteko akordio berriak indartu egiten du 2003. urtetik datorren harremana; denbora horretan, bi kooperatibek lanak egin dituzte konfiantzazko tokiko hornitzaile gisa, balio kooperatiboak partekatzeaz eta gertuko ingurunearentzat balioa sortzeaz gain.



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK

Akordioari esker, karga luze eta astunen manipulazioa konpondu da, eta material astunak eta hainbat dimentsiotakoak biltegitzeko eta garraiatzeko espazioa ahalik

eta ondoen aprobetxatzen da. ULMAren orga jasotzaile berriak erositako karga horiek malgutasunez garraiatuko dira korridore estuetan

eta zabalera desberdinetan, ibilgailuak moldagarriak baitira.

ULMAK FSC BASOAREN ASTEAN LAGUNDU DU, IRAILAREN 24TIK 30ERA

FSC® (Forest Stewardship Council) ziurtagiria eskuratuta, ULMAK basoen kudeaketa arduratsua bermatzen laguntzen du, **biodibertsitatea eta ekosistema ugari babesteko bere harri koskorra jarriz.**

ULMAk duen FSC® zaintza katearen ziurtagiriak **baso produktuen iturri jasagarrietarako trazabilitate baldintzak betetzen direla ziurtatzen du.** FSC® ziurtagiriaren irismena taula fenolikoan salmentari aplikatu dakioko.

Ziurtagiri hori lortzea beste urrats bat izan zen ULMAk zuraren eta basotik eratorritako beste produktu batzuen kontsumo jasagarriarekin hartutako konpromisoa sendotzeko, **bere jardueraren garapenaren eta gizarte ongizatearen arteko harmonia ingurumenarekin**



ULMA CONSTRUCTION

bateragarri izatea bermatuko duten beharrezko bitartekoei balioa emanez.

Gainera, horrela, ULMAk behar bezala erantzuten die bere bezeroei, gero eta kontzientzia handiagoa baitute FSC® zaintza katearen

ziurtagiria duten produktuen erabilerari, BREEAM bezalako eraikuntza metodo jasagarriari edo LEED eraikuntzari buruz, besteak beste.

GRIPEAREN AURKAKO BESTE KANPAINA BAT ULMAN

Urtero bezala, ULMAko Osasun Zerbitzuak abian jarri du gripearen aurkako kanpaina, azaroan. **ULMAko langileen erantzuna oso handia izan da**, 2020-2021 urteetako datuen pare, eta pandemia aurreko txertaketaren datuak nabarmen gaindituta.

Urtaroko gripea transmititzeko gaitasun handia duen gaixotasun bat da, arnasbideetako gaixotasun infekzioso akutua baita. Gaur egun, txertaketa da gaixotasun hori prebenitzeko daukagun biderik onena, eta helburu nagusia da, kasu larriak eta horien konplikazioak murriztea.

Babestu zure burua eta babestu zure ingurunea!



ULMA TALDEA

ULMA AGRICOLA FRUIT ATTRACTION 2022 AZOKAN



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola 2022ko urriaren 4tik 6ra Madrilen egin zen Fruit Attraction azokan egon da, **barazki eta fruta sektorean harremanak eraikitzeko eta aberasteko, loturak sortzeko eta etorkizuneko proiektuak ehuntzeko** helburuarekin.

Fruit Attraction fruta eta barazkiak munduan merkaturatzeko erreferentziako merkataritza tresna nagusietako bat da.

Azken urteotan, **sektorearen balio katea osatzen duten profesional guztien konexio komertzialerako gune** bihurtu da. ULMA Agricola, goi mailako teknologiako soluzio integralen hornitzaile gisa joan zen hitzordu horretara, eta baratze laboreak ekoizteko dituen ideiak eta proposamen integralak aurkeztu zituen.

ULMA, AZKENEAN, TXILEN



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Componentsek bere **lehen proiektua egingo du Txileko meatze konpainia liderrarentzat**, eta horrek esan nahi du oso erreferentzia garrantzitsua lortu dela herrialde horretako meatze merkaturan dugun presentzia handitzeko.

Lan komertzial handia egin ondoren, Txileko proiektu berri hori estrategiko bihurtu da ULMArentzat, eta datozen 3 urteetan Txile bere merkatu nagusia izatea espero da.

ULMA DRAINATZE KANALAK FRANTZIako PORTU ZAHARRENETAKO BATEAN

ULMAK DRAINATZE SOLUZIOAK HORNITU DITU NANTESKO PORTUAN (FRANTZIA), HERRIALDEKO PORTU ZAHARRENETAKO BATEAN, 3.000 URTEKO ANTZINATASUNA BAITU.

Proiektu horretan instalatutako F gama zibileko kanalak karga handiak jasan behar dituzten tarteetarako diseinatuta daude bereziki. Horregatik, sareta kanalean finkatzeko sistema bat dute, metro linealeko 8 torloju dituena, eta ez 4 torloju, merkatuko kanal gehienek bezala. Horrela, segurtasun eta erresistentzia handiagoa lortzen da, sareta eta kanalean zehar indarren egonkortasuna eta banaketa handitzen delako.

Portuak oso eremu zorrotzak dira, bai zirkulazioaren bolumenagatik, bai giroaren gazitasunagatik. Ezaugarri horiek direla eta, instalatutako drainatze soluzioek iraunkorrak eta erresistenteak izan behar dute.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA CONVEYOR COMPONENTSEK PERUKO POSIZIOA SENDOTU DU



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

ULMA Conveyor Componentsek **kobre meategi garrantzitsuenetako baten hedapen proiektu garrantzitsu bat gauzatuko du Perun**, eta, horretarako, merkatuko liderrekin lehiatu behar izan du. Kasu honetan, garraiaigailuen zatia gidatzen duen ingeniariatza Mexikokoa da, eta horrek esperientzia berri bat dakar, orain arte lankidetzan aritu diren ingeniariatza gehienak alemaniarrek edo estatubatuarrek baitziren.

ULMA liderra da Peruko kobre meategi garrantzitsuenetan arrabolen eta estazioen horniduran, eta proiektu honetarako **karga ahalmen handiko arrabolak erabiliko ditu, abiadura handietarako egokiak**, zehazki CEMA E eta CEMA F tartekoak. Elementu horiek lehiarako abantaila handia dakarkite ULMAri, segmentu horretan azken urteetan egindako espezializazio handiaren ondorioz.

ULMA PACKAGINGEK URRUNEKO LAGUNTZA INDARTUKO DU, BEZEROEN MAKINEN GELDIALDIEN DENBORAK MINIMIZATZEKO



ULMA PACKAGING

ULMA PACKAGINGEK BIDEODEIA EGITEKO TRESNA BAT DU, ERREALITATE AREAGOTUAN OINARRITUA, SMARTPHONE ETA TABLETETARAKO, GERTAKARIAK ZUZENEAN ETA URRUNETIK IDENTIFIKATZEKO ETA BISTARATZEKO AUKERA EMATEN DUENA.

Horrenbestez, diagnostikoa errazten du, komunikazio akatsak murrizten ditu eta jarraibide argiagoak ematen ditu makina ahalik eta lasterren berriro martxan jartzeko.

Tresna erabili duten ULMAko **bezeroek positiboki baloratzen dute**, eta alderdi hauek nabarmentzen dituzte:

-Erantzuteko denbora. Arazoa konpontzeko denbora laburtu egiten da, diagnostiko zehatz bat lortzen edo gertakarien behin betiko irtenbidea ematen delako.

-Makina geldirik egoteko denbora gutxitzea.

-Askotan, teknikariaren desplazamendua saihesten du, eta horrek **aurrezki ekonomiko handia** ekar dezake.

-ULMAren eta bezeroaren arteko **komunikazioa arinagoa eta zehatzagoa** da.

-ULMAko adituen **aholkularitzarako sarbide azkarra eta erraza** eskaintzen du.

Errealitate areagotuaren bidez, ULMAko aditu taldea gai da bezeroaren gailuko kamerak jasotzen duen irudiari buruzko argibideak emateko, eta arreta zer elementutan jarri behar den zehatz adieraz dezake.

Gainera, tresnak dokumentuak partekatzeko aukera ematen du, denbora errealean oharrak egin ahal izateko, eta segurtasun estandar gorenak betetzen ditu.

ULMA HANDLING SYSTEMSEN PROIEKTU BERRIA LACHOVITZENTZAT ISRAELEN



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek Lachovitz enpresak Israelen duen biltegi automatizatu berri bat hornituko du. Biltegi berria egungoari erantsita eraikiko da, eta **irtenbidea emango dio Israelgo enpresa horren ekoizpen eta salmenten hazkundeari, etorkizunean negozio bolumena handitzeko aukera ere bermatuz.**

Biltegi berriak izoztutako paletetarako bi korridore izango ditu, 1000 x 1200 mm-koak, eta beste bi izoztutako erretiluetarako, 430 x 730 mm-koak. Guztira, biltegiak 3.900 palet eta 6.000 erretilu inguru izango ditu.

Biltegia bi kotatan banatuta egongo da: bat zoruaren arrasean, kanpotik paletak sartzeko ahalbidetuko duena, eta 2 U Picking soluzio eta Shuttle-Car VTD bat izango ditu. Bigarren kota lurretik 5 metrora egongo da, eta irtenbidea emango die biltegiko paleten irteerei eta erretiluen sarrera eta irteerei.

BRIDORREK ULMA HANDLING SYSTEMSENGAN JARRI DU KONFIANTZA BERRIRO

ULMA HANDLING SYSTEMS



ULMA Handling Systemsek proiektu berri bat garatuko du BRIDOR enpresak Louvernen (Frantzia) duen ekoizpen zentrorako. Enpresa hori Le Duff taldekoa da, eta munduko ogi, opil eta pastel izoztuen fabrikatzaile nagusietako bat da.

Proiektu berria egunean zehar egiten diren eta bukatu eta gero bidali behar diren produktuen paleten buffer bati buruzkoa da. Horretarako, **-18 °C-ra garraiatzeko sistema bat du, 6 lerroz osatua, bakoitza 70 metrokoa, 350 palet hartzeko edukierarekin, palet bakoitzean 1.200 kg jarrita.**

Helburua da instalazioa martxan jartzea eta 2023aren amaierarako entregatzea.

TERMOFORMAZIOKO MAKINAREN GAINEKO SOLUZIO BERRITZAILEA, OINARRIKO EBAKINIK GABE, LEAFSKIN™ ENBASEETARAKO

ULMA Packagingek termoformazioko makina modelo berri bat garatu du, produktu freskoak hutsean eta kartoizko oinarri lau batean skin ontzian ontziratzen. Irtenbide berri hori ULMAK enbasatzeko soluzio jasangarrien alde duen konpromisoaren barruan kokatzen da.

Termoformazioko makina berriari esker, **ontziaren kostuan asko aurreztu daiteke, %11** ere, kate bidezko arrastea duten beste termoformagailu konbentzional batzuekin alderatuta, oinarriko ebakinik ez dagoelako, eta **%48 ere aurreztu daiteke oinarriko materialaren eta ekotasen kostuan**, termoizilatzeko aurrez moztutako erretiluekin alderatuta. Horrez gain, **plastikoaren erabilera %80 ere murrizten da** skin erako ontzi tradizionalarekin alderatuta.

Logistikari dagokionez, halaber, nabarmenezkoa da karbono aztarnaren murrizketa, bai ontziaren materialaren garraioari dagokionez eta baita hondakinen kudeaketari dagokionez ere.



ULMA PACKAGING

REVIT® DISEINUA: 3DKO IRTENBIDE TEKNIKOA 'CEBÚ CORDOVA LINK EXPRESSWAY' PROIEKTURAKO

Filipinetan egindako azpiegitura proiektu handienetako bat da. Zubiak bi pilono oktagonalean ditu, aurpegi guztietan aldakorak, eta 150 metroko altuerakoak.

Tamaina handiko proiektua izanda eta, gainera, geometria konplexuak edukita, **eredua 3Dn eduki eta erraz eskuratu ahal izateak ahalbidetu du obra gauzatu aurretik eta gauzatzen ari zen bitartean izandako arazoak edo interferentziak azkar konpontzea.** Edozein aldaketa eredu digitalean eguneratzen zen zuzenean, eta, horrela, **informazio fluxua etengabea eta eraginkorra izan da proiektuko parte hartzaile guztien artean.**

Pilonoa REVIT®en diseinatzea funtsezkoa izan da ULMA sistema guztiak aplikatu ahal izateko, pilonoaren geometria konplexua kontuan hartuta: aldakorra sekzio oktagonalean eta igotze fase guztietan ere bai. **REVIT®ekin, pilonoaren fuste osoan eta gehitutako material geruza bakoitzerako, egiaztatu ahal izan da irtenbide teknikoak ez zuela inoiz interferentziarik izango. Hala, fase bakoitzean diseinu egokia planteatu ahal izan da.**

Hori dela eta, enkofratuaren eta ATR Sistema Autoigokariaren bi irtenbide egin dira, bat 1. faserako eta bestea 2. eta 3. faseetarako, zubiko taula pasatu eta gero geometria aldatu egiten baitzen.



ULMA CONSTRUCTION

EDIA XL ORGA ELEKTRIKOA, 2022KO PRODUKTU JASANGARRIRIK ONENA

ULMA Manutentzio Zerbitzuen EDiA XL orga elektrikoak urteko produktu jasangarrienaren saria lortu du UK Material Handling Association ospetsuak ematen dituen Archies sarietan. Lehiaketa horren historian gure markak jasotzen duen zazpigarren saria da.

EDiA XL orga elektrikoak **bere klaseko isilena eta energetikoki efizienteena da, eta kutsadura akustikoa eta soinuarena murrizten ditu eta emisioak ezabatzen ditu, aldi berean, diesel orga baten potentzia osoa eskainiz.** Orga elektrikoak AutoBoost sistema ere badu, potentzia gehigarria emateko behar



ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK


denean, hala nola malda handietan edo arrapaletan.

Sari horietan, epaimahaiak positibo baloratu zituen EDiA XLn sartutako teknologia berriak, aukera ematen


baitute orga elektrikoak alternatiba ekologiko erreala izan daitezkeen barne errekuntzako motorren orde, lehen baino ingurune gehiagotan.

ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

ENERGIA HUTSA



—
PATXI LUQUE
ULMA PACKAGING



eskaneatu QR kodea
(Tony MacAlpineren "The
vision" kantaren bertsiak)

"MUSIKA, MUSIKARI BATENTZAT, SENTIMENDUEN ADIERAZPEN GORENA DA, ETA, NIRE KASUAN, GITARRA DA SENTIMENDUAK BIDERATZEKO, ADIERAZTEKO ETA PARTEKATZEKO BITARTEKOA..."

—
Patxi Luque ULMA Packagingeko termozgilaketan ari da lanean, Produktu Berrien Lerroko taldean, UPTCn. Gitarra elektrikoa, akustikoa eta klasikoa jotzen ditu. Orain dela gutxi aro bat itxi du Itinerum taldearekin. Proiektu horren lehen CDa laster izango da kalean, baina, aldi berean, bakarka jotzen ibili da. Kontzertuetan estilo ugari bertsionatzen du, heavy gogorrenetik hasi eta pop-rockerraino, gitarra beti ardatz hartuta.

Patxi Luquek 17 urterekin ekin zion musika ibilbideari, BBBko 3. maila ikasten ari zela. Gogoratzen du egun batean, eskolako atsedendian, gelakide batek esan ziola gitarra bat eskuratu eta jotzen ikasteko asmoa zuela. Patxi ere gauza bera zeukan buruan, beraz, animatu eta batera jotzen hasi ziren. Elkarrekin ikasiz joan ziren eta, ondoren, euren taldea osatu zuten.

Patxi gitarra bat hartzera behin betiko bultzatu zuena, kasete bat izan zen, lagun batek grabatutako Iron Maidenen "Somewhere in time" eta "Seventh son of a seventh son" diskoak zituena. Ordurako, Luquek ezagutzen zuen taldearen kanturen bat, hala nola "The trooper", baina hura errebelazio bat izan zen! "Nik huraxe egin nahi nuen!!!! Goizero jaikitzen eta gauero oheratzen nintzen gitarra haiek nire buruan nituela!!!! Nire burmuinean sartu ziren!!! Gogoan dut institutuan matematikako

azterketak egiten nituen bitartean abesti haiek buruan neuzkela bueltaka!!! Ikaragarria izan zen, benetan ikaragarria!!! Nire barruan zerbait esnatu zen, eta oraindik ere zainetan daramat!!! Azaltzeko zaila da, zerbait sinestezina, ia-ia beharrezkoa dut bizitzeko", azaldu digu.

Urteetan ibili zen itzalpean trebatzen, esperientzia eta ezagutza hartzen ondo prestatuta egoteko... Bere lehen taldea Jose Luis Delgado lagunarekin batera sortu zuen Soraluzen. Hainbat urtez jo zuten, baina inoiz ez zuzenean. Gerora, Berrizko talde batekin entseatzen ibili ondoren, Donostiako Urrezko Pua-Leize Gorria lehiaketan parte hartu zuen eta Aitor Alberdi eta Haritz Uriarterekin batera -biak ere ULMA Packagingeko bazkideak-PoLi-tiCks taldea sortu zuten. Talde horrekin kontzertu dezente eman zituzten eta 4 kantuko EP bat grabatu zuten. Horren ondoren Arias & Rock iritsi zen, pandemiak eragin zuen geldialdiaren ostean argia ikusteko zain dagoen proiektua.

"Ikaragarri gustatzen zait taberna txikietan jotzea, giro berezia egoten baita... eta mikroa irekita uzten dut nahi duenak abesteko har dezan. Maite dut hori egitea eta gainerakoei agertokian zer sentitzen den jakiteko aukera ematea", adierazi digu Patxi.

Esperientzia asko bizi izan ditu, baina, beharbada, unerik garrantzitsuenetako bat Gary Mooreren "The Loner" kantua

Urrezko Pua-Leize Gorria lehiaketaren finalean jo zueneko izan zen. "Niretzat, kantu hori, zein eta KANTU horizuzenean jotzea, errealitate bihurtutako ametsa izan zen, are gehiago 500 pertsonaren aurrean jo nuela kontuan hartuta", esan digu hunkituta. Beste une hunkigarri bat hurrengo urtean lehiaketa bereko finalean jo zueneko izan zen, parte hartu zuten ia 80 musikarien artean bigarren saria, Zilarrezkoa Pua, irabazi zueneko.

Patxi urrian eman du azken kontzertua Zumarragan. Katxalin elkarte eta bularreko minbiziaren aurkako borroka babesteko kontzertu solidarioa izan zen.

Patxi adierazi duenez, duela urte batzuk zailagoa egiten zitzaion lana eta entseguak uztartzea, haur txikiak edukita, arratsaldeak bakarrik izaten zituelako jotzeko. "Beti eskertu izan diet Maria emazteari eta Ivan, Daniel eta Marcos semeei zentzu horretan eman didaten laguntza guztia", esan du. Semeak hazi ahala, eta lan ordutegi malguari esker, dena da errazagoa orain. Praktikatzeko modua ere aldatu egin du. Lehen anplifikagailu batekin jotzen zuen arratsaldeko 8ak arte; gaur egun, ordea, ordenagailua, anplifikagailuak simulatzeko programak eta entzungailuak erabiltzen ditu. Horri esker, goizaldeko ordu bata arte ere jo dezake.

nire aukera da!

ULMA AUKERATZEN DUT

Gure gazteek aukeratu dute dagoeneko, eta ULMA aukeratu dute. HorietakobatzukULMAgaratzendariden marka enplegatzailearen kanpainaren lehen fasean laguntzen ari dira azken hilabeteetan. Horren bidez, Markari eta haren ezaugarri nagusiei balioa eman nahi zaie, alde batetik, Talde gisa dugun posizionamendu sozioenpresariala erakargarriagoa izan dadin, eta, bestetik, gure Negozioak indartu nahi dira talentua erakartzeko estrategian. Kanpainaren bigarren fasea 2023ko udaberrian hasiko da, kanpo publizitatean egingo diren inpaktuekin.

KANPAINAREN HELBURUAK

ULMAren Marka Enplegatzailearen kanpaina abiarazteko estrategiatik off eta on hedabideetan martxan jarri arte sortu da, NIRE AUKERA DA kanpaina bezala. Finean, gure Negozioei talentua erakartzeari buruzko mezua indartzeko laguntzea da kontua.

Egindako jarduera eta ekimen guztietan nabarmendu nahi izan dugu, zalantzarik gabe, gure pertsonak protagonista izatea izan dela kanpaina hau bakana izatea eragin duena, Talde gisa dugun esentzia islatu duten irudi eta bideoen bidez.

Kanpaina garatzeko diseinu eta ikonografia lerro bat sortu da, oso bisuala, ikus-entzunezkoekin, argazkiekin eta sare sozialetarako formatuekin. Lehen fasean, abendura arte, zuzenean jardun da off eta on hedabideetan, bai barnekoetan bai kanpokoetan, eta bigarren fasean, 2023ko udaberriaren inguruan, zuzenean eragin nahi da kanpo publizitatearekin, zehaztutako helburuko publikoaren segmentuan.

EKOIZPENA ETA JARDUERAK

(lehen fasea)

- Kanpaina aurkezteko bideoa
- Argazki saioak
- Bisita ULMAk Reale Arenan duen VIP palkora
- ULMA Taldearen Memoria Sozialaren aurkezpena
- Talentuari buruzko erreportajea Noticias de Gipuzkoan
- Ikus-entzunezko piezak ingurune digitaletarako
- Komunikazioa sare sozialetan eta kanal digital propioetan
- Publizitatea prentsan eta hedabideetan



nire aukera da!

ULMA AUKERATZEN DUT

ULMAko Negozio guztietako 18 gazte, 25 urtetik beherakoak, Marka Enplegatzailearen publizitate kanpainaren garapenean ari dira parte hartzen. Kanpaina tonu komunikatibo fresko eta dinamikoan ari da garatzen, gure inguruneko unibertsitateko eta lanbide heziketako gazteei zuzenduta. Hemendik, azken hilabeteetan erakutsi duten konpromisoa eta lankidetzaz eskertu nahi diegu.

Eskerrik asko!



— **DAVID DELGADO.**
ULMA CONVEYOR COMPONENTS

— **IKER AKESOLO.**
ULMA CONVEYOR COMPONENTS



— **MARÍA BODES.**
ULMA HANDLING SYSTEMS



— **IÑIGO SORALUCE.**
ULMA MANUTENTZIO ZERBITZUAK



— **MAIALEN AZPITARTE.**
ULMA CONSTRUCTION



— **IZARO IRAOLAGOITIA.**
ULMA EMBEDDED SOLUTIONS



— **DANIEL MARTINS.**
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

— **OUSMANE KEINDE.**
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



— **JOSEBA RODRÍGUEZ.**
ULMA FORGED SOLUTIONS



— **HAIZEA DEL OLMO.**
ULMA HANDLING SYSTEMS

— **NATALE VERGARA.**
ULMA PACKAGING



— **JON ARRIARAN.**
ULMA CONSTRUCTION



— **ANE SÁEZ.**
ULMA TALDEA

— **ION ANDER GUERETA.**
ULMA PACKAGING



— **GORKA MÁRQUEZ.**
ULMA FORGED SOLUTIONS



— **JONE ALUSTIZA.**
ULMA PACKAGING

— **AINARA TROJAOLA.**
ULMA AGRÍCOLA



TEKNOLOGIARIK SOLIDARIOENA

MUNDU HOBE BAT IKUSTEKO

ULMAren elkartasuna, bere Medical Technologies jardueraren bidez sustatzen den teknologia baliatuz, gizarte bazterketako arriskurik handienean dauden pertsonengana iristen da.



ULMA Taldearen Medical Technologies jarduerak indarrak batu ditu 'Abre sus Ojos' irabazi asmorik gabeko erakundearekin eta Miranza Begoña Klinikarekin, herritarren begi osasuna hobetzeko, dibertsitate funtzional intelektuala duten eta gizarte bazterketako arriskuan dauden 500 pertsonari zuzendutako ekimen batean.

ULMAren teknologiari esker, profesional boluntarioek begi anatomia osoaren azterketak egin ahal izan dituzte, kalitate handiko arreta oftalmologikorako sarbidea orokortuz.



—
ITXASO HERRERA.
Miranza Begoña Klinikako oftalmologoa, 'Abre sus Ojos' elkarteko boluntario eta ULMAko Aholkularitza Batzorde Zientifikoko kidea..

Zorte handia da lanbide hau izatea eta, gainera, 'Abre sus Ojos' bezalako proiektu batean parte hartzeko aukera izatea. Pertsonak ezagutzea, ondo diseinatutako talde lana, ikusmenaren eta industriaren hainbat sektoreekin lankidetzan aritzea, eta beste batzuen alde "zerbait egin" ahal izatearen plazera.



—
REBECA ATIENZA.
Miranza Begoña Klinikako oftalmologoa, 'Abre sus Ojos' elkarteko boluntarioa.

'Abre sus ojos' ekimenak pertsona talde handi bat du, oso motibatua, eta azken teknologiek lagunduta, sarbide konplexuagoa duten kolektiboen ikusmena hobetzeko, izan ere, ikusmenak bereziki eragiten du haien bizi kalitatean.



—
JOSETXO DE FRUTOS.
ULMA Medical Technologies, S. Coop.eko CEO

Garatu dugun teknologiari esker, medikuntzako hainbat profesionalak gailu medikoak eskuratu eta erabil ditzakete orain arte erabiltzerik ez zegoen egoeretan.

2022

Irailaren 1a - abenduaren 31

ERRETIROAK

ENRIQUE OLASO



JESUS FERNANDEZ



ENRIQUE MIRANDA



PEDRO BORREGUERO



ALBERTO DE PEDRO



eskerrik asko eta gozatu!

Zorionak



Etxeokin batera partidara joan ziren ULMAko kide batzuen taldeko argazkia.
Fotografía de grupo de algunas de las personas de ULMA que acudieron al partido junto a sus familias.



Eskerrik asko parte hartzeagatik!
¡gracias por participar!